



## Itsas Zuzenbideko Hiztegia

(Maritime Law Dictionary)

ZENARRUZABEITIA ALONSO, Leire

UZEI  
Aldapeta 20  
20009 Donostia  
leize@uzei.com

BIBLID [1137-1951 (2004), 13; 97-98

Sarrera eguna: 2004.12.30  
Onarpen eguna: 2004.12.30

### U

UZEI Terminologia eta Lexikografiako Zentroak Itsas Zuzenbideko Hiztegia kaleratu berri du, nagusiki arlo honetako euskarazko testuak prestatzeko eta beste hizkuntzetan dauden eskuliburuak euskaratzeko orduan lagungarri izango den terminologia finkatzeko asmoz.

**Giltza hitzak:** UZEI.  
Hiztegia. Itsas Zuzenbidea.

### E

El Centro Vasco de Terminología y Lexicografía UZEI acaba de publicar un diccionario de Derecho marítimo en euskera que contribuye a la consolidación de la terminología vasca a la hora de preparar nuevos textos en euskera o traducir los existentes en otras lenguas.

**Palabras clave:** UZEI.  
Diccionario. Derecho marítimo.

### Z

Le Centre Basque de Terminologie et Lexicographie UZEI vient de publier un dictionnaire sur le Droit maritime orienté essentiellement à consolider la terminologie pour rédiger des nouveaux textes en basque ou traduire ceux qui sont en autres langues.

**Mots Clés:** UZEI.  
Dictionnaire. Droit Maritime.



---

**Eusko Jaurlearitzako Garraio eta Herrilan Sailak eskatuta, Itsas Zuzenbideko Hiztegia egin berri dugu UZEIn, Itsas Arduralaritzaren Eskolako buru den Jose Luis Trueba jaunaren gidaritzapean.**

---

Kontzeptu-kopurua eta hizkuntzak eskabi-dean bertan ezarri zitzaizkigun: Itsas Zuzenbidean oinarritzkoak diren 300 kontzeptu bildu behar genituen, ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz.

Eremu-zuhaitza, berriz, Itsas Arduralaritzaren Eskolako buruarekin finkatu zen. Horretarako, hiztegiaren helburua kontuan hartu zen. Izan ere, asmoa ez zen Itsas Zuzenbide osoa besarkatuko zuen hiztegia egitea, horrek egundoko lana eskatuko baitzukeen eta, gainera, zuzenbidearen esparruan diharduten erakunde nagusien artean egin beharko baitzatekeen. Aitzitik, helburua honako hau izango zen: Eusko Jaurlearitzako Garraio eta Herrilan Sailak eta Itsas Arduralaritzaren Eskolak Itsas Zuzenbideari buruz argitaratu dituzten eskuliburuak euskaratzeko lagungarri izango zen terminologia finkatzea. Helburu hori kontuan hartuta, eremu-zuhaitzak lau azpisail hauek izango zituela erabaki zen: 1) Itsas Zuzenbideko termino orokorrak; 2) Itsas garraioa; 3) Itsas aseguruia; 4) Abordajea, matxurak eta salbamendua.

Ondoren, bibliografia aukeratu eta corpusa zehaztu zen. Zeregin honetan ere asko lagundu zigun Jose Luis Trueba jaunak, gure esku jarri baitzuen Itsas Arduralaritzaren Eskolako liburutegia. Liburutegi horretatik hartu genituen hustuketa-corpora osatu duten Itsas Zuzenbideko testu espezializatuak. Alde batetik, Eusko Jaurlearitzako Garraio eta Herrilan Sailak eta Itsas Arduralaritzaren Eskolak argitaratutako eskuliburuak: Curso de Derecho de la Navegación, Manual de Derecho del Transporte Marítimo (487-744 orrialdeetan itsas garraioan gehien erabiltzen diren ingeles jatorriko kontratuak ageri dira), Manual de Derecho del Seguro Marítimo, Anexo al Manual de Derecho del Seguro Marítimo eta Manual de Derecho de Accidentes de la Navegación. Bestetik, ingelesez idatzitako jatorrizko ontziratze-agiriak, garraio-polizak, salbamedu-kontratuak, aseguru-polizak, etab. Horietatik guztietatik abiatuta finkatu zen ingelesezko eta gaztelaniazko termino ez osatutako oinarritzko nomenklatura.

Gero, oinarritzko nomenklaturako terminoen frantsesezko, ingelesezko eta gaztelaniazko baliokideak biltzeko, datu-base terminologikoak eta hiztegi espezializatuak erabili genituen, besteak beste: TERMIUM-Le dictionnaire électronique bilingüe du Gouvernement du Canada, Le grand dictionnaire terminologique (Québec),

Eurodicautom, Diccionario Jurídico-Comercial del Transporte Marítimo (ALAS, C.), Dictionary of Shipping Terms (BRODIE, P.R), etab.

Euskarazko ordainak finkatzeko, Deustuko Unibertsitateak argitaratutako Merkataritzako Zuzenbidea eskuliburuan ageri diren itsas zuzenbideko terminoak kontuan hartu dira. Horrez gain, Euskalterm, Elhuyar hiztegia, Hiztegi Handia, eta Pasaiako Portuko Agintaritzak aurten argitaratu duen Pasaiako portuaren hiztegia ere baliatu dira, besteak beste. Esan gabe doa Euskaltzaindiaren arauak eta Hiztegi Batua gidari izan direla euskarazko ordainak zehazteko orduan.

Azkenik, terminologia-lan hau egiteko ezin bestekoa izan da adituaren lankidetzak. Jose Luis Trueba jaunaren koordinaziopean, aditu-talde aparta izan dugu lankide: EHUKo Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Pribatuko katedradun den Juan José Álvarez jauna, Merkataritza Ontzidiko kapitain, Nazioarteko Merkataritza Ganbarako teknikari eta EHUKo Nazioarteko Merkataritzako eta Ekonomiako irakasle den Koldo Garatea Uskola jauna, eta itsas aseguruetan aditu den Imanol Basterretxea jauna. Adituok ezin eskertuzko laguntza eman digute kontzeptuak argitzen, oinarritzko nomenklatura finkatzen, sailkapenak zehazten, terminoen baliokidetzak konfirmatzen eta euskal ordainen egokitasuna berrikusten.

Lanaren emaitza Itsas Zuzenbideko eskuliburuak euskaratzeko eta arlo horretako testuak euskaraz sortzeko lagungarri izango diren oinarritzko terminoen bilduma izan da. Euskalterm Terminologia Banku Publikoan dago kontsultagai, helbide honetan: [www.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskadi.net/euskalterm).